

Saharako haurrak hartzeko deia

80 familia behar dira
Nafarroan udan ▶ 7



Berrikuntza ugari izango da Tolosa Goxua azokan larunbatean

BERRIAK ▶ Herriko 5 gozogileek produktu berriak
aurkeztuko dituzte; tailerra eta budin lehiaketa ▶ 4



Tolosako bost gozogileak bere berrikuntzekin atzo, larunbateko azokaren aurkezpenean. IRATXE ETXEBESTE



NOELIA LATABURU

Korrika Txikiak izan dira herri askotan eguzkipean

TOLOSALDEA ▶ Ikastetxeetako ikasleek jendez
bete zituzten kaleak; gaur Altzon egingo
dute; Bilbora joateko autobusa jarri dute ▶ 2,3

TOLOSA ▶

Hegoaldeko
epaileen
jarrera
salatu du

Joko arriskutsuarekin
irabazi zuen ▶ 5

TOLOSA ▶

Goren mailako
lidergoan sendo
jarraitzen du Tolosak

Oriokoren zelaian 1-2 irabazi zuen
partidu gogor batean ▶ 6

ILEA PAINDEGIA
kyoko

Gaur
inaugurazio
festa 19:00etan
Gonbidatuta
zaude!

Solana 5 • TOLOSA
Tel.: 943 67 08 13



EUSKARA ▶



Zizurkil. Korrikarekin lasterka gogorra egin ostean, merezitako saria jaso zuten eta sabelak ondo asetu zituzten haurboek txokolate eta bizkoko jate goxoa eginez Zizurkilen. I. GARCIA

Ekiaren irrifarra ahotan

Eskualdeko Korrika Txiki gehienak egin zituzten atzo arratsaldean hainbat ikastetxek antolatuta; eguzkiak ere egon nahi izan zuen euskararen aldeko festan eta haurren arpegi alaiak argitu zituen



Alegia. San Joan eskolako gazteek herriko kaleak zeharkatu zituzten, Korrikaren doinua lagun. I. TERRADILLOS



Asteasu-Larraul. Korrika Txikiak bi herrietan barrena egin zuten korri, lekukoa eskuetan. IMANOL GARCIA

IMANOL GARCIA
NOELIA LATABURU

Eskualdeko umeek primeran igaro zuten atzoko arratsaldea, Korrikaren alde korrikan. Aspaldi gurera bisita egin ez zuten eguzki izpi beroek jardunaldia alaitu zuten, bai eta gogor bilakatu, izan ere izerdiaren aurka aritu behar izan ziren etxeko gaztetxoek eskualdeko hainbat herrietako kaleetan barrena eta guztiek, ikasle, irakasle zein guraso, Korrikako peto koloretsuak soinean, aho batez abestu zituzten euskararen aldeko leloak.

Arratsaldeko lehen orduetan hasi ziren lehen lasterketak eskualdean. Lehendarrak Iruan eta Alegian izan ziren, 15:00etan egin baitzituzten euren Korrika Txikiak biek ala biek. Irurako korrikalariei harrera egin zieten dantzariak herriko plazan, ibilbidea amaitu zutenean. Ondoren, *euskararen aldeko manifestua* irakurri zuten. Ekitaldiari amaiera emateko, *behin betiko* abestu zuten eta meriendatxoia ere izan zen.

Beste herri batzuetako lasterkariek 15:30ean zuten hitzordua. Tolosa, Amezketeta, Zizurkil, Alkiza, Aduna, Villabona, Amasa, Larraul eta

Asteasun, hain zuzen ere. Hauetan guztietan eskoletako haurrek korrika egin ostean, bestelako ekitaldiak ere antolatu ziren, txokolate jatea, bertso saioa eta musika, esaterako. Alkiza, Aduna eta Zizurkilgo haurrek batera egin zuten ibilbidea eta Oria gaineko zubia pasa ondoren Villabonako txikienei eman zieten lekukoa.

Tolosako Korrika Txikiak, berriz, jende andana bildu zuten Trianguloan eta bertatik abiatuta bi ibilbide ezberdin egin ziren. Samaniegokoak Orixe aldera irten ziren bitartean, Laskorainekoak eta Hirukidekoak ibilbideari elkarrekin ekin zioten Usabal aldera.

Pello Errota ikastetxeok al-dapa beheko korrika saioa egin zuten Larrauletik hasi eta Asteasuraino.

Hurrengo txanda ikaztegi-tarrek hartu zuten, ordu bete beranduago. Horrela, herriko ikastetxeok, gurasoak lagun, herriko kaleak zeharkatu zituzten 16:30etik aurrera. Ondoren, txokolatada egin zuten plazan. Eta jardunaldia ixteko, Ibarrako haurtoak atera ziren 17:30ean. Herriko plazara heldu zirenean Musika eskolakoak aritu ziren giroa alaitzen. Korrika Txiki hauek eman zioten lekukoa Korrika 14ari.



Tolosa. Triangulotik irten zen Korrika Txikia arratsaldean. L. MONTES



Ikaztegieta. Eguzkiak ederki berotu arren, gustura aritu ziren. N. L.



Ibarra. Haurtoak herriko plazaraino heldu ziren, zubia pasata. I. G.



Irura. Dantzariak saioa eskaini zuten, umeen gozagarrirako. HITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
- Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 00 68 00
- ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
- ▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37
- ▶ Asunzion klinika 67 57 99
- ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
- ▶ DYA: 67 25 36
- ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
- ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona.** Anbul.: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa, M.I. Nagusia (Tolosa). 943 67 06 48.
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
Anoetaldea. 687 41 00 22
anoetaldea@tolosaldeko hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko hitza.info
Leitzaldeko. 687 41 01 18.
leitzaldeko@tolosaldeko hitza.info

Korrika 14 guretik pasa ondorengo ekitaldiak

Atzo gaueko ordu txikietan igaro zen, azkenik, Korrika 14 gure eskualdeko hainbat herriatik. Baina Korrikaren hari-ara antolatutakoak ez dira atzoko Korrika Txikietara eta Korrikara mugatzen, jakina. Gaur, berriz, Altxokoei dagokie txanda eta arratsaldeko 15:50ean frontoitik plazarainoko bidea burutuko dute umeek.

Zizurkilgo Korrika Batzordeak antolatuta, Argia dantza taldearen *Pas de Basque* emaldia eskainiko da larunbat honetan 20:00etan herriko In-txaur pilotalekuan. Taularatu-ko duten lanaren zuzendari lanetan Juan Antonio Urbeltz dago. Emanaldirako sarrerak

aurretiaz erosi ahal izango dira Aurrera plazako Udal bulegoetan. Salneurria 6 eurokoa izango da aurrez erosiz gero, eta 7 euroko egunean bertan erosita. helduentzat eta 3 eurokoa 14 urte azpiko gaztetxentzat. Sarreretan jasotakoaren zati bat Korrikaren 14. edizioaren alde bideratuko da.

Iruran ere gaur Korrika materiala izango da salgai herriko plazan eta Baliarrainen eltxetxu bat ipiniko dute Udaleko bulegoan igandera bitartean, Korrika lagundu nahi duen edonorentzat.

Hamar egunez Euskal Herriko txokoak zeharkatu ostean, Korrika 14 Bilbora iritsiko da,

martxoaren 20an. Igandean Bizkaiko hiriburura lasterketa-aren amaierara joan nahi duenarentzat Tolosatik autobusa irtengo da, San Frantziskotik goizeko 09:00etan. Txartelak Raku tabernan daude jadanik salgai, zortzi euroren truke. Txartel hauek lortzeko azken eguna bihar izango da.

Atzo HIRZAK argitaraturiko

Korrikaren kilometroen erosten zerrendaren barruan, Ikaztegieta Udala sartzeko dago. Herri honetako Udalak ere kilometro bat erosi du Korrika 14ean.

Eskualdeko erakunde, elkartea, udal eta bestelako gizarte eragile asko murgildu dira euskararen alde Korrikarekin bat. ◀

MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak,...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Tolosa. Tolosan Zumalakarregi kalean, bezeroaren gustura guztiz eraberritutako etxebizitzak salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukalgela, egongela eta trasteroarekin. Oso eguzkitsua. Deitu 609 804 886 zenbakira.

GASTRONOMIA ▶



Tolosa Goxuaren aurkezpena egiteko gosari-tertulua egin zuten udal ordezkariak, gozogileek eta adituek atzo, kazetariokin, La Perlan. I. ETXEBESTE

Gozogintza berriruntz

Larunbatean izango den Tolosa Goxua azoka bereziaren aurkezpena egin zuten atzo Donostian; modu berezian egin ere: kazetariokin gosari-tertulua eginez

IRATXE ETXEBESTE

Gozogintzaren hiriburutzat har omen daiteke Tolosa XXI. mendearen hasieratik. Gipuzkoako, Euskal Herri osoko hiriburu gisa. Hala zioten atzo Tolosa Goxua azokaren aurkezpena egiteko Donostiako La Perla jatetxean agerraldia egin zuten udal ordezkari, gozogile eta adituek. Bai, halaxe da: gozogintzaren hiriburu omen deneko azoka bereziari buruzkoak azaltzeko, Gipuzkoako hiriburu hautatu.

Ez, ordea, kasualitatez. «Tolosan, Uzturre mendiaren magalean eguna hastear zenean eta Donostiara etorrira, argitzen ikusi dudanean zera etorri zait burura: Gipuzkoa hiri irekia. Zein gertu gauden tolosarrok eta donostiarrok, modu honetako ekimenak batak bestearean ezagutzera emateko». Horixe zioen Tolosako alkate Jokin Bildarratzek Tolosa Goxua azoka bereziaren nondik norakoak azaltzen hastera koan. Herriaren 750. urteurre-

na dela-eta Tolosak «erakargarri» izateko duen borondateaz ere jardun zuen Bildarratzek, eta Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuko lehendakari Jose Miguel Gomez Elosegik Tolosa Goxuaren aurkezpena Donostian egitea «guretzat, berria» dela onartuz. Tolosa bereizgarri produktuen kalitateak egiten duela esan zuen: «Babarrunak, txuletak, gozogintza... erreferente gara».

Tolosako gozogintza berritzen ari da. Gozogileek horixe azpimarratu nahi izan zuten ezerean gainetik. Beterie gozogintzaren tradizioari helduta, berrikuntza bilatzen ari direlako etengabe. Tolosa Goxuaren edizio berri honetan produktu berriak aurkeztuko dituzte herriko gozogileek, eta horietatik eraman zituzten atzoko ekitaldira: Gorrotxategi gozotegiko Rafa Gorrotxategik xaba bonboiak; Eceiza gozotegiko Luis Mari Eceizak te pastak, Gozona-Ibañez gozotegiko Anselmo Ibañezek Saint Honore tartak;



Gozogileak eta udal ordezkariak, azoka berezia aurkezten. I. ETXEBESTE

Gorosti gozotegiko Ignacio Expositok bonba txikiak (trufazko eta kremazko bonbilak), eta Saizar gozotegiko Nieves Sorokak miniaturazko pasteltxoak. Tolosako gozogintzako ordezkariekin batera, hamabost sal-tzailek hartuko dute parte larunbateko azoka berezian, eta horietako bakoitzak produktu ezberdinak eramango ditu: Azkoitiko makarroiak, Hondarribiko txapela eta gipuzkoak, Errioxako erroskilak, euskal

pastela eta era guztietako tartak, hain zuzen ere.

Tailerra eta lehiaketa

Gozogintza berritzen ari bada, etorkizuneko gozogileek berrikuntza horien berri izan beharko dute, ezinbestean. Bada ahalegin horretan ari da Tolosako Peñasal fundazioa; alegia, alor ezberdinetan, etorkizuneko profesionalak prestatzen. Larunbaterako ekitaldi berezia antolatu nahi izan dute eurek ere, eta gozogintza tailerra egingo dute Trianguloan.

Tailarren beharrik izan ez, eta Tolosa Goxua azokan parte hartu nahi dutenek, gozogintza lehiaketarekin dute horretarako aukera. Herriar guztiek dute izena emateko aukera, baldin eta larunbatean, antolatzaileek zehaztutako ordu eta lekuan, arrautza budina aurkezten badute.

Goiz parteko ekitaldiak bukatuta, arratsaldean berdelaren festa handia ospatuko dutela iragarri dute, bestalde, an-

TOLOSA GOXUA ▶

Tolosa Goxua azoka bereziak hainbat berrikuntza dakartza aurtengoan:

EGITARAUA

09:00. Azokaren hasiera.
10:00-11:00. Arrautza budin lehiaketan parte hartzen dutenek beren postreak eta errezetak aurkeztuko dituzte Trianguloan ipinita egongo den karpan. Peñasal fundazioaren eskutik, Gozogintza tailerra izango da, bestalde: produktuen dekorazioa eta muntaia.
12:00. Lehiaketako irabazleak ezagutzera emango dituzte eta sari banaketa izango da.
14:00. Azokaren amaiera.
17:00etatik aurrera. Plaza Berrian, berdelaren festa.

GOZOGINTZA LEHIAKETA

Herri lehiaketa. Tolosako gozogileek (Eceiza, Gorosti, Gorrotxategi, Gozona-Ibañez eta Saizar) eta Udalak herri lehiaketa berria antolatu dute: arrautza budina.

Oinarriak. Gutxienez, lau laguntzako arrautza budina aurkeztu behar da, norik bere gustura egina, erabilitako errezetarekin batera, Trianguloan, 10:00ak eta 11:00ak artean, larunbatean.

Sariak. 12:00etan banatuko dituzte, Trianguloan.

▶ 1. saria: 150 euro eta oparia.

▶ 2. saria: 120 euro eta oparia.

Epaimahaia. Eva Argiñano (Argiñano jatetxea), Lurdes Recondo (Recondo jatetxea) eta Jose Mari Gorrotxategi (Gorrotxategi gozotegia).

Izen-ematea. Lehiaketarako izena eman nahi dutenek 943 69 74 54 telefono zenbakira deitu behar dute, bihar baino lehen, 09:00ak eta 13:00ak bitartean.

tolatzaileek. Mutrikuko hogeitarrantzaleak kontserba berdelaren pintxo eskainiko dute dastatzeko. «Ekimen horrekin apirilaren 2an Mutrikun izango den Berdelaren X. Festa eman nahi dute ezagutzera».

Euskal Herri mailan erreferente bilakatu omen da Tolosa berriro nekazal eta elikagai sektoreetako kalitatezko azokak antolatzerakoan. Guk atzokoak dastatu genituen; larunbatean Tolosa Goxuan izango direnak. Aurkezpena baino, gosari-tertulua eskaini zigitelako antolatzaileek kazetariok. Kalitatezkoak ez dakigu; gozoak, behintzat, baziren.

autonomoztatza eta mikroenpresatarako dako **mintegiak**

Zure negozioan, atera probetxua telefonia mugikorrari.

Telefono mugikorra eguneroko lanetan furtuzko tresna da. Mintegi honetan, **zure negozioa informazioa egunero eduliztuko, gailu eta aukera berrien bidez eskaintzen dituen enbileria eta aplikazioak erabiltzeko** ditzazu. Honek, alferrikako dirik edo bidalarik egin ez dezazun.

Tolosako martxoak 17
TOLOSA
Tolosako Lanbide Heziketa Institutua

Orduak: 18:00-20:00

Informazioa eta beste emaketa:
902 252 595
www.miramedigital.com
www.miramedigital.com

Asistentzia

Asistentzia

Asistentzia

ARETO FUTBOLA ▶

Epaileen jarrera eta joko arriskutsua salatu ditu Hegoalde

2-5 irabazi du Mostolesen aurka, partida gogorrean

LEIRE MONTES

«Aurkari gogorra eta arriskutsua» zuten Hegoalde larunbatean: Madrilgo Tecnocasa Mostoles taldea. Azken denboraldietan, bai Kopan bai Ligan, kalitate handiko eta emozio biziko partidak jokatu izan dituzte bi taldeek. Biak, gainera, txukun ari dira bigarren itzuli honetan. Baina Tolosakoek gogotsu ekin zioten partidari, eta hiru puntuak etxera ekartzea lortu zuten: 2-5 irabazi zuten.

Arina eta jokaldi onez betetako izan zen lehen zatia: erasoan arriskatu zuten bi taldeek, baina atzeko lerroez ahaztu gabe. Tolosakoek hautsi zuten partida: «Taldea jokoan asmatu genuen. Kantxan ondo kokaturik aritu ginen, eta jokalarien arteko komunikazioa oso ona izan zen», azaldu du Maite Argote taldeko ordezkaririk.

Tolosarren nagusitasunaren aurrean, «joko gogorra eta arriskutsua» erabili zuten madrildarrek. Epaileek «ez ikusiarrena egin» zutela ere salatu dute Hegoaldekoek: «Aline brasildarrak sarrera gogorrak egin zizkien gure jokalariei, eta ez zuten zigorrik jaso. Maider, ordea, merezi gabe bidali zuten kalera epaileak, protesta egiteagatik. Eta Zurri lesionatu egin zuten: sahiets-hezurreen fisura da. Betikoa errepikatu da oraingoan ere. Erabaki haue-



Hegoaldeko zenbait jokalarik, denboraldi hasieran, Berazubín. I. GARCIA

TECNOCASA MOSTOLES ▶ 2 HEGOALDE ▶ 5

Tecnocasa Mostoles. Sanz, A. Jimenez, Manzano, L. Jimenez, Damas, Diez, Diaz, Fernandez, Alvarez, Murriaga, Aline Nines. **Hegoalde.** Arana, Agirrebe, Azpilikueta, Salazar, Videra, Zelaia, Martinez, Lopez, Barrio, Mayo, Zuriarrain.

Golak. 0-1: Salazarrek (08m.); 0-2: Barriok (17m.); 1-2: Barriok (19m.-bere atean-); 2-2: Fernandezek (23m.); 2-3: Barriok (25m.); 2-4: Barriok (30m.); 2-5: Aranak (31m.).

kin, indarkeria eta joko zikina bultzatzen dute epaileek». Zaleek ere jokalaririk «iraindu» zituztela salatu du Argotek.

Bigarren zatian ere «presioari aurre egin» behar izan zioten Tolosakoek, baina bat egin eta partidari eutsi zioten: joko ona egin, berdinketa hautsi eta aldea handitzea lortu zuten. «Probokazioari, sosesuz eta joko onez erantzun genion».

Lurdes Zuriarrain atezainak, lesionaturik egon arren, bigarren zati osoa jokatu zuten: «Bere kalitatea argi utzi du, beste behin». Isa Barrio ere «bikain» aritu zen, eta hiru gol sartu zituen; Nerea Salazarrek eta Miriam Aranak sartu zituzten Tolosakoen beste biak.

Datorren asteburuan Soto del Real taldea hartuko du Hegoaldeko Berazubín, 19:00etan.

XAKE ▶

Tolosa-Ibarra taldeak irabazi egin du berriro

Gipuzkoako Ligako 9. jardunaldian, Tolosa-Ibarra xake taldeak Beasaingo Alfil liderraren bisita jaso zuen. 2,5-1,5 irabazi zuten etxekoek, J.J. Pagolaren eta R. Etxeberriaren garaipenei eta D. Moreauren berdinketari esker. Txapelketa amaitzeko bi txanda falta direla, hirugarren dira.

ERLIJIOA ▶

Garizumako hitzaldiak Santa Maria parrokian

Garizumako hitzaldiekin jarraituz, aste honetan gaztelaniazko saioak eskaintzen ari dira Santa Marian. Jose Antonio Pagolaren eskutik, *Izan zaitezte errukitsu zuten Aitarekin* izango dute gaur mintzagai, 20:00etan, areto nagusian. Ordu berean egingo dute bihar otoitzaldia, elizan.

MUSIKA ▶

Musika Eskolako ikasleen kontzertua

Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur, 19:30ean, eskolan. Lide Mendikute, Lorena Arrastua, Iñigo Azkue, Ander Azkue, Maddi Agirrezabala, Mikel Zelaia, Jon Urbizu, Josune Balza, Jon Altuna, Irati Odriozola, Nerea Gangoitia eta Igor Arostegi ariko dira.

HIRUGARREN ADINA ▶

Harizpekoak, Lurraldeko Jokoetan lehian

Tolosaldea-Goierriko Lurraldeko Jokoen final-laurdenak jokatu dituzte Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteek. Bi bikote sailkatu dira: puntxon, Angel Izagirre eta Gonzalo Campo; eta tokan, Jose Manuel Ortiz eta Juan Francisco Arrospide. Etzi jokatuko dituzte finalerdia, 11:00etan, Legazpin.

HITZALDIA ▶

Transplantei buruz, Aitzol udal euskaltegian

Aitzol udal euskaltegiak bihotz, gibel eta birika transplanteteei buruzko hitzaldia antolatuta du biharko. Gipuzkoako Elkarte hiru kide izango dira hizlari, eta euskaraz eskainiko dute solasaldia. Bi saio prestatu dituzte: 09:30ean eta 15:30ean, biak euskaltegian. Hitzaldia jende guztiarentzat dago zabalik.

PILOTA ▶

Eskualdeko Pilota Topaketan izen-ematea

Tolosaldeko II. Eskupilota Topaketak hastear dira, eta izen-ematea zabalik da. Parte hartzeko eskualdekoa izan behar da, eta 1997-1986 urte bitartean jaio izan. Izen-ematea 647 31 55 99an (Jeremias), 943 01 65 25an (Ortiz) eta 617 04 40 55an (Egiguren).

ESKATU INFORMAZIOA



San Frantzisko ibiltokia 19, behea
20400 - TOLOSA
Tel.: 943 69 81 26
Fax: 943 69 82 82
E-mail: tolosa@datavi.com



Aldatu zure enpresa Euskaltelera
eta eskuratu Nokia 6230 bat

1 €
-ren truke

Eta, gainera,
% 50 eko
deskontua lehen
hiru hilabeteetako
fakturan.

Aukera
itzazu **0** €
-ren truke
deitzeko
eguneko 4 ordu.

*Hilko kuota: 10 €.

- Bluetooth-a.
- Argazki-kamera.
- Kikoretako pantaila.
- Soinu polifonikoak.

Telefono mugikorreko estabeko operadore batetik dagoen bezeroen ahalentzat balio du sustapenak, hilabean 19€-ko gubierneko kontsumo eta 18 hilabetez beje er emetako konpromisoa hartu duten Enpresaentzako Kontratu Libre eta Negozio Kontratuak duten bezeroentzat da sustapena. Egindako kontsumoari aplikatuko zaio deskontua, tarifa bereziko zenbait zerbitzuetarako, sare adimendunekoak eta nazioarteko roaming-ekoak aintzat hartu gabe. Sustapen mugatua: 100 unitate.



en Banatzale Ofiziala

TOLOSA ▶ KIROLA

Tolosak irabazi eta lidergoan jarraitzen du

Gogortasuna nabarmendu zen partiduan; Oriokok jokalaria bat gutxiagorekin jolastu izana nabaritu egin zuen Tolosak

INIGO TERRADILLOS

Partida gogorra izan zen Tolosarentzat pasa den larunbatean Oriokoren aurka Zubietan jolastutakoa. Hori bai, lan handia egin ondoren garaipena lortu eta puntuak etxera ekarri zituzten lidergoan mantentzen direlarik.

Nabarmenezkoa izan zen partidaren gogortasuna eta hau agerikoa da jokalariek ikusi zituzten txartel kopurugatik; 3 jaso zituzten tolosarrek eta 11, berriz, Orioko jokalariek. Gogortasun horrek partidaren jokoa asko moteldu zuen eta Tolosakoak eurek egiten duten jokoa egin ezinik aritu ziren partidaren hasieran.

Apezetxea, Lacalle, Sagasti-

beltza, Artola, Garmendia, Eloja, Orue, Romero, Regillaga, Prados eta Lasa atera ziren berdegunera Tolosatik. Egini-ko aldaketak, berriz, lau izan ziren, guztiak bigarren zatian: Zuloaga Prados-en ordezkari 65. minutuan, Garagarza Elolaren ordezkari 75. ean, Ilunbe Lasaren ordezkari 80. ean eta Blanco Orue-oren ordezkari 90. minutuan.

Lehenengo zatian 25. minutuan, gogortasuna nagusi zen egoera horretan etorri zen Orioko taldearen gola eta abantaila horrekin iritsiko ziren atsedena dira bi taldeak.

Bigarren zatian, segituan etorriko zen berdinketaren gola, 55. minutuan hain zuzen; oriotarrek eginko penalta ikusi zuen epaileak eta hau Gar-

mediak jaurti eta sare barruan sartzea lortu zuen baloia. Une horretan, lasaitasuna nabaritu zuen talde tolosarrak, jokalaria bat gutxiagorekin geratu zirelako oriotarrak eta berdinketaren gola egin zutelako.

Segituan etorri zen bigarrena, hau da, Tolosari garaipena eman zion gola. 60. minutuan sartu zuen Zuloagak eta ez zen markagailua gehiago mugitu, 1-2 amaitu baitzen partida.

Puntu garrantzitsuak lortu zituzten Tolosak larunbateko partida irabazita. Lehenengo postuan jarraitzen du, baina gertu ditu ondorengo biak, beraz partida bakoitza izango da irabazi beharrekoa hemendik aurrera.

ELDUAIN ▶

Silo-bolak egiteko plastikoaren bilteta Artatxu baserrian

Gaur eman beharko dira silo-bolak egiteko erabiltzen diren plastikoak herriko Artatxu baserriera. Bolak ondo lotuta ematea eskatzen da haizeak altxa ez ditzan. Behin plastikoak baserri ondoan dagoen puntura eramanda, bihar, egingo da hauen bilteta. Udaletik herritarren parte-hartzea eskatu dute.

ALTZO ▶

Teknologia berrien inguruko hitzaldia gaur

Gaur, 19:00etan udaletxeko ganbaran *Teknologi berrien haurren duten eragina* izenburua duen hitzaldia eskainiko du Antton Alfarok. Teknologia berriak ekarri dituzten onura eta kalteen inguruan mintzatuko da hizlaria.

ZIZURKIL ▶

Aste Santuan txikienak jolasean

Aurtengo Aste Santuan, martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean hain zuzen, 1993-2001 urte bitartean jaiotako umeentzat jolasak antolatu ditu Zizurkilgo Udalak. Izen-emateak, Aurrera plazako udal bulegoetan egingo dira martxoaren 16a baino lehen, eta 5 euro ordaindu beharko dira.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita bihar goizean KZgunean

Bihar 9:00etatik 13:00etara tutorearen bisita izango da KZgunean. Gainera, Enplegu bat lortu mintegia izango da 10:00etatik 12:00etara. Ordezagailu edo Internet-en inguruan dauden zalantzak argitu ahaliko dira, beraz.

IBARRA ▶

Guraso eta haurren erlazioa aztergai gaur

Marian Goienola psikomotrizistak gaur 17:30ean *Egunerokotasunean guraso eta haurren artean ematen den erlazioa* izenburupean hitzaldia emango du Ibarako Uzturpe udal haur eskolan. Guraso eta haurren arteko erlazioan dauden zalantzak argitzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

IBARRA ▶

Ipuin kontalari saioa gaur Kultur Etxean

Ibarako Benito Izagirre kultur etxean, gaur 17:30ean ipuin kontalari saioa izango da ikusgai. Saio hau Maite Frankok zuzenduko du eta 4-9 urte bitarteko haurrentzat izango da. Ipuin kontaketa Ibarako Udal Liburutegiak antolatzen du.



Bertso-afarirako txartelak salgai daude

IBARRA ▶ Datorren larunbatean, martxoaren 19an bertso-afaria antolatu du Ibarako Hauspoa elkarteak. Xepla elkarteak egingo da afaria eta bertan izango dira Bixente Gorostidi

eta Millan Telleria bertsolariak. Larunbatean 20:30ean izango da hitzordua. Azken egunak geratzen dira afarira joateko txartelak Ibarako tabernetan eskuratu ahal izateko. HITZA

iragarki laburrak ▶



Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Andoain. 75 m²-ko etxebizitza kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua.

Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; oso argitsua eta garabiarekin.

Belauntza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza Colon pasealekuan salgai. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Donostia. Duplex zoragarria. 70 m², berritua, ikuspegi ederra Gros hondartzara.

Donostia. Urbieta kalea, 90 m²-ko etxebizitza. Berritzeko.

Donostia. Donostizarra. 75 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria salgai.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Segura. Berritutako etxebizitza, bi eta hiru gelakoak eta lur sailarekin.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Igogailua eta trastelekua.

Tolosa. Santa Klara kalean 90 m²-ko etxebizitza berritua. Atzealdean baratz propioa.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Berritzeko premia.

Tolosa. Lokal komertzialak,

salmentan edota alokairuan (Gorostidi, lurre, Kale Nagusia, Larramendi...).

Villabona. Arroa kalean etxebizitza lehen solairuan. Igogailua, hiru ikuspegi, berritzeko.

GIZARTEA ▶

Udan haur sahararrak hartzeko deia

Saharar Herriarekin Elkartasuna
Taldeak egin du gonbidapena



laz Rashid, Hoceine, Moustafa, Salek eta Mariam etorri ziren. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Udan Saharako haurrak etxean hartzeko deia egin du Saharar Herriarekin Elkartasuna Taldeak eta hala egin nahi duten Areso eta Leitzako familiek ez ezik, Nafarroako mendialdekoek ere, izena eman dezaten eskatu.

Horretarako epea, martxoaren 31 jarri dute. Egun hori baino lehen Maimur edo Astiz liburudendetan eman behar da izena; Malerrekako eta Baztan-goek, berriz, eta hurrenez hurren, 948 451 787 edota 948 581 277 telefono zenbakietara deituz egin dezakete.

Jakina denez, Euskal Herri oso herrietara hainbat eta hainbat haur saharar etortzen dira bertako familiekin uda pasatzera, modu berean gureetara ere.

Aljeriako lurretan, Saharako basamortuan kokatuta dau-

den Aaiun, Smara, Auserd, errefuxiatu-kanpamendutan, wilaya-etan, bizi dira beren jatorrizko Saharar Errepublikan herriatik desplazatuta, milaka eta milaka saharar. Bertan, besteak beste, udan egiten duen bero jasangaitza dela eta, batez ere haurrak dira eragin nabarmenak izaten dituztenak.

Horrela, bada, haurren eskolako oporraldia hastez batera, urtero hainbat espedizio ateratzen dira handik, saharar herriari elkartasuna adieraziz, hango haurrak hartzen dituzten herrietarantz, udako hila-beterik beroenak lasaiaigo igaroz batera, askotan dituzten osasun arazoei sendabidea ez bada, suspertzen saiatuz eta lasaitasuna eta indarra berreskuratzeko baliatuz.

Aurten, ezagutzera eman dutenez, Nafarroan 80 familia behar dira, saharar umeak beraien etxean hartzeko.

LEITZA ▶

Aralar taldeak ikurrinarekiko argibideak plazaratu ditu

Alkateen desgaitzeak etortzeko «arriskuak» behartutako erabakia izan dela dio oharrak

J. ASTIBIA

Leitzako Aralar taldeak, «ikurrinaren aferari buruzko argibideak» plazaratu nahi izan ditu, besteak beste here-negun HITZARI helerazi zion ohar baten bidez.

Horrela, bada, ohar horretan dionez, Aralarrek «garbi utzi» nahi du, udaletzeko baloitik ikurrina kendu izana «epaitegietatik aurkako agindu tinko bat ailegatu delako», hartu zutela. Beren esanetan, agindu hori bete ezean, «alkatearen desgaitzuntza dakarren Zigor Kodearen 410. artikulua» ezar ziezakeela baieztatzen dute, «gaur egungo eta etorkizuneko alkateei» ere, oharrean diotenez.

1997an ikurrina udaletzeko balioan jartzeko hartutako akordioaren aipamena ere egiten dute oharrean, garai hartako «hutsune legal batez baliatuz» hartutakoa izan zela iritiz eta beraiek diotenez, «Ikurren Legearekin desagertu» omen zena.

Aralarri gai honetan «arinkeriaz jokatu» izana egozte eta «ikurrina herriko plazan jartzeko hartutako akordioa», Leitzan ez onartzea, ez dutela ulertzen diote, bestalde. Egoera honen sortzaile eta arduraduntzat, ordea, Nafarroako Gobernua dute, eta «herriko abertzaleen arteko harremanak okertzea eta desadostasunak handitzea» berari egozten diote. Horren inguruan «erreflexio sakona» egiteko eskaera egiten dute bukaeran.

LEITZA ▶ KULTURA

Leitzako lehendabiziko ipuin leihaketa abian da

Gaia libre izanik, lanak hurrengo hilaren 4a arte aurkez daitezke Maimur edo Astizen

J. ASTIBIA

Ipuin leihaketa jarri berri dute abian, aurreneko aldiz eta bertan 16 urtetik gorako edozeinek parte har dezakeela eman du aditzera Leitzako Kultur Taldeak, horretarako zaletasuna edota gogoia izanez gero behintzat.

Edozein gaitaz eta nahi den adinetako irakurleei bideratutakoak izan daitezke ipuinak, oinarrietan ageri denez: «Umeentzat, helduentzat... Gaiaren arabera eta idazkerari begiratuta, sailkaepn desberdinak egingen dira», zioten. Hori bai, «ordenagailuz edo makinaz idatzita, 2-5 orri bitarteko luzera» izan behar dute. Apirilaren 4a da, lanak jasotzeko azken eguna eta

Maimur edo Astiz liburudendetan utzi behar dira.

Lanak aurkeztu, gutunazal handi batean egin behar dira, ipuinari izenburua bakarra jarritz. Aparteko gutunazal tikiagi batean izenburu hori bera eta egilearen izen-abizenak eta telefono zenbakia aipatzen dituen oharra jaso eta hau ere gutunazal handian sartuko da.

Epea igarota, epaimahaiak, herriko idazle zenbaitez osatutakoa omen, leihaketaren irabazlea nor den jakitera emanen du. Sari banaketarako deialdia ere, bere garaian egingen omen dute, diotenez.

Ipuinak idaztea gustuko izan edo horretan saiakera egin nahi duen guztiak, beraz, badu aukera.

LEITZA ▶ KIROLA

Albako Harrira joanen dira igande honetan

Baztan aldeko parajeak ezagutzeko, mendi irteera antolatu du Mendibil mendi taldeak

J. ASTIBIA

Albako Harrira joanen dira igande honetan Mendibil mendi taldekoek antolatu duten irteeraz baliatzeko asmoa dutenak. Horrela bada, bihar, hilak 17rainoko epea dute izena emateko, edo Astiz edo Maimur liburudendetan.

Igande goizean plazan elkartu eta 8:00etan aterako dira Baztan aldera. Elizondotik aterako dira mendira; Bai-

legiko lepotik igaro eta 1.074 metroko altuera duen Albako Harri harkaitzezko tontorrera igotzeko asmoa dute. Batz beste, Elizondon 200 metroko altueratik hasi eta ia 900eko desnibela da gainditu beharrekoa, bost bat orduko ibilaldian. Igoera exari-exarian egingen da, hasierako zatian, bertakoak diren hariztietan zehar eta goikaldera igo ahala, larre eta harrobi tarteketan barre-na.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

ERRROMERIA

2005/03/19



*Trikipoteoa

*Afaria

*Dantzaldia:

Epele eta Larralegarria

Afarriko oinarriak:
Elizate, Giletako eta Elizate

▶ UDABERRI DANTZARI TALDEAK martxoaren 19an antolatutako ERRROMERIAKO afarian parte hartzeko aukera izango duzu

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE AFARIRAKO 4 TXARTELEN ZOZKETAN

ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT! 943 65 56 95
(11:00-13:00 / 16:00-19:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

